



<p>LASARTE-ORIAKO ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINEN UDAL- ORDENANTZA</p> <p>ZIOEN AZALPENA</p> <p>Udal-araudi honek ekonomia zirkularrerako hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legean du legitimitatea, eta hondakinak gaika biltzeko eta lehengaiak berreskuratzeke sistema berrirako lege-marko espezifiko baterako oinarriak ezartzen ditu.</p> <p>2018an, Europar Batasunak zenbait direktiba onetsi zituen, besteak beste honako direktiba hauek berrikusteko: hondakinei buruzko direktiba markoa, ontziei buruzko direktiba, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuei buruzko direktiba, pilei eta metagailuei buruzko direktiba, eta gailu elektrikoen eta elektronikoen hondakinei buruzko direktiba. Direktiba horiek Europako Batzordearen Ekonomia Zirkularreko Ekintza Planeko "Hondakinen Paketea" deritzona osatzen dute, eta pakete horren helburu nagusia da hondakinen kudeaketa hobetzea, arreta berezia jarriz udal-hondakinen kudeaketan. Neurri multzo horren bidez udal-ekintza zehazten da, eta produktuen bizi-zikloaren "zirkulua itxi" nahi da, prebentzioa eta birziklapena areagotuz eta hondakinak berrerabiltzeko prestaketa bultzatuz; era horretan, baliabide naturalen erabilera eraginkorra eta arrazionala bermatu nahi da, eta energia aurrezte eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea lortu nahi da.</p> <p>Horrela, bada, hondakinen kudeaketari buruzko ingurumen-politikek lotura zuzena dute klima-aldaketaren ondorioak maila lokalean arintzearekin. Hori dela eta, Europar Batasunaren helburu estrategiko eta politika</p>	<p>ORDENANZA MUNICIPAL DE RESIDUOS DOMÉSTICOS Y COMERCIALES DE LASARTE-ORIA</p> <p>EXPOSICIÓN DE MOTIVOS</p> <p>La presente normativa municipal, que encuentra su legitimidad competencial en la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular, sienta las bases para un marco legal específico para el nuevo sistema de recogida selectiva de residuos y de recuperación de materias primas.</p> <p>La Unión Europea aprobó, en 2018, una serie de directivas que revisan, entre otras, la Directiva Marco de residuos, la Directiva de envases, la Directiva de vehículos al final de su vida útil, la Directiva de pilas y acumuladores y la Directiva sobre residuos de aparatos eléctricos y electrónico, que integran el denominado "Paquete de residuos" del Plan de Acción de la Comisión Europea para la Economía Circular, cuyo objetivo principal es la mejora de la gestión de residuos y pone especial énfasis en la gestión de los residuos municipales. Este conjunto de medidas determina la acción municipal y pretende "cerrar el círculo" del ciclo de vida de los productos a través de más prevención, de un mayor reciclado y un impulso a la preparación para la reutilización de los residuos, de manera que se garantice la utilización eficiente y racional de los recursos naturales, con el beneficio añadido del fomentar así el ahorro energético y reducir las emisiones de gases de efecto invernadero.</p> <p>Así, las políticas ambientales en relación a la gestión de los residuos están directamente relacionadas con la mitigación a escala local de los efectos del cambio climático. Por ello, con el fin de alinearse con los nuevos objetivos</p>
---	---



berriekin bat egiteko, gaikako bilketako eta birziklapeneko tasa altuak lortu beharko dira; besteak beste, ekonomia zirkularraren bidez eta lehengaien eta baliabide naturalen kontsumoan aurreztuz. Ildo horretan, Europako Hondakinen Direktiba Markoak eta Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legeak jasotzen dutenez, hondakinen prestaketak eta birziklapenak % 55era iritsi behar du 2025. urtean, % 60ra 2030. urtean, eta % 65era 2035. urtean.

Horregatik, txartelaz irekitzen den edukiontzi marroia ezarri zuen 2017an Lasarte-Oriako Udalak, bihohondakinen gaikako bilketa-zerbitzua eskaintzeko. Zerbitzua ezartzeko unean informazio-kanpaina bat egin zen, eta 2020an errefortzu-kanpaina bat, baina, hala ere, hondakinen jatorriko bereizketaren emaitzak ez dira iristen lortu nahi den mailara, eta gaikako bilketaren tasa % 46an gelditu da.

Adierazitako helburuak betetzeko, herritar guztien parte-hartzea eta inplikazioa ezinbestekoak dira, eta, horregatik, Hondakinen Ordenantza hau eta bertako edukiak eta ebazpenak idatzi dira, ingurumenaren arloan anbizio handiz ezarritako helburu berriak betetzeko, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, eta osasun publikoko politikak betetzeko, ekonomia zirkularra bultzatzuz.

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da Lasarte-Oriako udalerrian etxeko eta merkataritzako hondakinak zabor-ontzietan uztera eta biltzera bideratutako jokabide eta jarduera guztiak arautzea, Euskadiko Institutio Lokalei

estratégicos y políticas comunitarias, se han de alcanzar altas tasas de separación selectiva y de reciclaje mediante instrumentos como la economía circular y de ahorro en el consumo de materias primas y recursos naturales. En este sentido la Directiva Marco Europea y la Ley de residuos y suelos contaminados para una economía circular, recogen que la preparación y reciclaje de los residuos ha de alcanzar un 55% en el año 2025, un 60% en el año 2030 y un 65% en el año 2035.

En esa dirección el Ayuntamiento de Lasarte-Oria puso en marcha en el año 2017 la recogida selectiva de los biorresiduos generados mediante el contenedor marrón con apertura electrónica. A pesar de la campaña informativa realizada en el momento de la implantación y de la campaña de refuerzo realizada en el año 2020, las cifras obtenidas en separación en origen no alcanzan los niveles deseables, ya que la tasa de recogida selectiva se ha estancado en un 46 %.

Para la consecución de estos objetivos es precisa la participación e implicación de toda la ciudadanía, por lo que se procede a la redacción de una Ordenanza de Residuos, con contenidos y determinaciones para el cumplimiento de los nuevos y ambiciosos objetivos ambientales, la lucha contra el cambio climático y las políticas de salud pública mediante el impulso de la economía circular.

TITULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

La presente Ordenanza tiene por objeto la regulación, dentro del Término Municipal de Lasarte-Oria, de todas aquellas conductas y actividades dirigidas al depósito y la recogida de residuos domésticos y comerciales, en el



buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak Udalari esleitutako eskumenen esparruan.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Ordenantza honetako aginduak Lasarte-Oriako udalerrri osoan aplikatuko dira, eta bizilekua edo egoitza Lasarte-Orian duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek bete beharko dituzte, bai eta bisitariek eta pasadizokoek ere, eragiten dieten alderdietan. Salbuespen gisa, industrialdeetako hondakinak berariazko araudiari jarraituz kudeatuko dira.

3. artikulua. Definizioak.

- a) *Hondakina*: substantzia edo objektu bat, daukanak bota egin duena edo botatzeko asmoa edo betebeharra duena.
 - b) *Etxeko hondakinak*: etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortutako hondakin arriskutsuak edo ez-arriskutsuak. Era berean, etxeko hondakintzat hartzen dira zerbitzuetan eta industrietan sortutako zenbait hondakin, baldin eta osaerari eta kantitateari dagokienez aurrekoen antzekoak badira, eta ez badira sortzen sektorearen edo industriaren berezko jardueraren ondorioz.
- Kategoria honetan sartzen dira, halaber, etxeetan sortzen diren hondakin hauek: sukaldeko olio erabilia, gailu elektrikoak eta elektronikoak, arropa, pilak, metagailuak, altzariak, tresnak eta koltxoiak, bai eta eraikuntza-obra

ámbito de las competencias atribuidas al Ayuntamiento por la Ley 2/2016, de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi, por la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, y por la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular.

Artículo 2. Ámbito de Aplicación.

Las prescripciones de la presente Ordenanza serán aplicables en todo el territorio del Término Municipal de Lasarte-Oria y deberán ser cumplidas por toda persona física o jurídica con residencia o sede en Lasarte-Oria, así como por las personas visitantes y transeúntes en aquellos aspectos que les afecten. Excepcionalmente la gestión de residuos en los polígonos industriales se regirá por su normativa específica.

Artículo 3. Definiciones.

- a) *Residuo*: cualquier sustancia u objeto que su poseedor deseché o tenga la intención o la obligación de desechar.
 - b) *Residuos domésticos*: residuos peligrosos o no peligrosos generados en los hogares como consecuencia de las actividades domésticas. Se consideran también residuos domésticos los similares en composición y cantidad a los anteriores generados en servicios e industrias, que no se generen como consecuencia de la actividad propia del sector o industria.
- Se incluyen también en esta categoría los residuos que se generan en los hogares de, entre otros, aceites de cocina usados, aparatos eléctricos y electrónicos, textil, pilas, acumuladores, muebles y enseres y colchones, así como los residuos y escombros procedentes de obras menores de construcción y reparación domiciliaria.



txikietako eta etxeko konponketako hondakinak eta obra-hondakinak ere. Etxeko hondakintzat hartuko dira bide publikoak, berdeguneak eta jolas-eremuak garbitzean sortutako hondakinak, bai eta etxeko animalia hilak eta ibilgailu abandonatuak ere.

c) *Merkataritzako hondakinak*: handizkako eta txikizkako saltoki, jatetxe, taberna, bulego eta azoketako jardueren ondorioz sortutako hondakinak, bai eta zerbitzuen sektoreko gainerako jardueren ondorioz sortutakoak ere.

d) *Udal-hondakinak*:

1. Nahasian eta bereiz bildutako etxeko hondakinak, honako hauek barne: papera eta kartoia, beira, metalak, plastikoak, biohondakinak, zura, ehunak, ontziak, gailu elektrikoak eta elektronikoak hondakinak, pilen eta metagailuen hondakinak, etxeko hondakin arriskutsuak eta tamaina handiko hondakinak, koltxoiak eta altzariak barne.
2. Beste iturri batzuetatik nahasian eta bereiz bildutako hondakinak, baldin eta hondakin horiek etxeko hondakinen antzekoak badira izaerari eta konposizioari dagokienez.

Udal-hondakinen barruan ez dira sartzen ekoizpenetik, nekazaritzatik, basogintzatik, arrantzatik, hobi septikoetatik, estolderia-saretik eta hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen hondakinak, araztegiko lohiak barne, ez eta balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta eraikuntzako eta eraipen-lanetako hondakinak ere.

e) *Sukaldeko olio erabilia*: etxean, zentroetan eta erakundeetan, ostalaritzan, jatetxeetan eta

Tendrán la consideración de residuos domésticos los residuos procedentes de limpieza de vías públicas, zonas verdes, áreas recreativas y los animales domésticos muertos y los vehículos abandonados.

c) *Residuos comerciales*: residuos generados por la actividad propia del comercio, al por mayor y al por menor, de los servicios de restauración y bares, de las oficinas y de los mercados, así como del resto del sector servicios.

d) *Residuos municipales*:

1º Los residuos mezclados y los residuos recogidos de forma separada de origen doméstico, incluidos papel y cartón, vidrio, metales, plásticos, biorresiduos, madera, textiles, envases, residuos de aparatos eléctricos y electrónicos, residuos de pilas y acumuladores, residuos peligrosos del hogar y residuos voluminosos, incluidos los colchones y los muebles.

2º Los residuos mezclados y los residuos recogidos de forma separada procedentes de otras fuentes, cuando esos residuos sean similares en naturaleza y composición a los residuos de origen doméstico.

Los residuos municipales no comprenden los residuos procedentes de la producción, la agricultura, silvicultura, la pesca, las fosas sépticas y la red de alcantarillado y plantas de tratamiento de aguas residuales, incluidos los lodos de depuradora, los vehículos al final de su vida útil ni los residuos de construcción y demolición.

e) *Aceites de cocina usados*: residuo de grasas de origen vegetal y animal que se generan tras ser utilizados en el



antzekoetan elikagaiak prestatu ondoren sortzen diren landare- eta animalia-jatorriko koipeen hondakinak.

- f) *Biohondakina*: etxeetako, lorategietako, parkeetako eta zerbitzuen sektoreko landare-hondakin biodegradagarriak, bai eta besteak beste etxe, bulego, jatetxe, handizkako saltoki, jantoki, sukaldaritza kolektiboko zerbitzu eta txikizkako establezimenduetatik datozen elikagaien eta sukaldeko hondakinak ere, eta elikagaiak eraldatzeko instalazioetatik datozen antzeko hondakinak.
- g) *Ontzi arinen hondakinak*: puntu berdea duten plastikozko eta metalezko ontziak, tetrabrikak, plastikozko poltsak, metalezko edo plastikozko tapoiak eta txapak, aerosol hutsak (desodoranteak, lakak, etab.). Ez dira sartzen paper-kartoizko ontziak, ezta beirazkoak ere, horiek beste bide batzuetatik biltzen baitira.
- h) *Paperaren eta kartoiaren hondakinak*: egunkariak, aldizkariak, liburuxkak, kartoiak, folio idatziak, paper-kartoizko ontziak, kartoizko arrautza-ontziak, paperezko poltsak, kartoizko kaxak, libretak eta koadernoak, karpetak eta antzeko hondakinak. Ez dira sartzen zelofana, aluminio-papera, tetrabrikak, argazkiak, erradiografiak, tisu papera edo pixoihalak.
- i) *Beira-hondakinak*: besteak beste, beirazko botilak (ur, ardo, likore, garagardo edo freskagarrienak), kontserba-poteak, jogurt-poteak, lurrin-flaskoak, beste produktu kosmetiko batzuen flaskoak eta antzekoak. Frakzio honetan ez dira sartzen bonbillak, leihoetako kristalak, ispiluak, betaurrekoak, pitxerrak,

cocinado de alimentos en el ámbito doméstico, centros e instituciones, hostelería, restauración y análogos.

- f) *Biorresiduo*: Residuo biodegradable vegetal de hogares, jardines, parques y del sector servicios, así como residuos alimentarios y de cocina procedentes de hogares, oficinas, restaurantes, mayoristas, comedores, servicios de restauración colectiva y establecimientos de consumo al por menor, entre otros, y residuos comparables procedentes de las plantas de transformación de alimentos.
- g) *Residuos de envases ligeros*: comprenden todos los envases provistos del punto verde envases de plásticos, de metal, tetra bricks, bolsas de plástico, tapones y chapas de metal o de plástico, aerosoles vacíos (desodorantes, lacas, etc.). No incluyen los envases de papel-cartón ni de vidrio, que cuentan con su propia vía de separación.
- h) *Residuos de papel cartón*: esta corriente incluye periódicos, revistas, folletos, cartones, folios escritos, envases de papel-cartón, hueveras de cartón, bolsas de papel, cajas de cartón, libretas y cuadernos, carpetas y residuos similares. No incluye papel de celofán, papel de aluminio, tetra bricks, fotografías, radiografías, papel tisú o pañales.
- i) *Residuos de vidrio*: estos residuos incluyen las botellas de vidrio de agua, vinos, licores, cervezas, refrescos, botes de conservas, yogures, frascos de perfumes y otros productos cosméticos, y similares. No se consideran dentro de esta fracción las bombillas, cristales de ventanas, espejos, gafas, jarrones, vasos, loza, lunas de automóviles, porcelanas,



<p>edalontziak, toska, automobilaren beirak, portzelana, zeramika eta antzekoak.</p> <p>j) <i>Arroparen, ehunen eta oinetako hondakinak</i>: etxeko mota guztietako ehunak, bai eta edozein motatako oinetakoak, arropa eta poltsak ere.</p> <p>k) <i>Pilak</i>: frakzio honetan botoi-pilak, pila zilindrikoak eta petaka-pilak daude.</p> <p>l) <i>Etxeko hondakin arriskutsuak</i>: etxeetan sortzen diren hondakinetatik, ezaugarri arriskugarriak dituztenak.</p> <p>m) <i>Sendagaiak eta sendagaien ontziak</i>: zorrotxoko sendagaiak, pastillak, kapsulak, anpoilak, supositorioak eta beste edozein eratako sendagaiak, barnean sendagaiak dauzkaten ontziak barne (plastikozko potxoak, kartoizko edo plastikozko kaxak, blisterrak, etab.).</p> <p>n) <i>Tamaina handiko hondakinak</i>: handiak direnez ohiko eran bildu ezin diren hondakinak, hala nola etxetresna elektrikoak, altzariak, koltxoak, somierrak, etab.</p> <p>o) <i>GEEHak</i>: gailu elektrikoak eta elektronikoak hondakinak.</p> <p>p) <i>Gainerako hondakinak edo errefusa</i>: bereiz bildu ezin diren hondakinak dira. Hondakin higienikoak (pixoihalak, konpresak, kotoia, paper-zapi bustiak, tiritak, etab.), garbitzeko produktuak, hala nola eskuilak, etxeko garbiketako hondakinak, etab.</p> <p>q) <i>Etxeko eraikuntzako eta konponketako hondakinak</i>: obra txikietan eta etxeko konponketetan sortutako obra-hondakinak dira, hala nola adreiluak, hormigoia, baldosak eta azulejuak, zura, plastikoak, igeltsu xaflatuzko plakak, komunontziak, bainuontziak, oholak, atea, leihoak, etab.</p> <p>r) <i>Eraikuntzako eta eraispeneko</i></p>	<p>cerámicas y similares.</p> <p>j) <i>Residuos de ropa, textil y calzado</i>: incluye todo tipo de producto textil del hogar, así como cualquier tipo de calzado, ropa e incluso bolsos.</p> <p>k) <i>Pilas</i>: esta fracción comprenden las pilas botón, pilas cilíndricas y pilas de petaca</p> <p>l) <i>Residuos peligrosos del hogar</i>: Todos aquellos residuos que se generan en los hogares con características de peligrosidad.</p> <p>m) <i>Medicamentos y envases de medicamentos</i>: Se incluyen los sobres de medicamentos, las pastillas, las cápsulas, las ampollas, los supositorios y cualquier otra forma en que se presenten los medicamentos, incluyendo los envases que los contengan (botes de plástico, cajas de cartón o plástico, blister, etc.).</p> <p>n) <i>Residuos voluminosos</i>: aquellos residuos que no pueden evacuarse por los medios de recogida normales debido a su envergadura, tales como electrodomésticos, muebles, colchones, somieres, etc.</p> <p>o) <i>RAEE's</i>: residuos de aparatos eléctricos y electrónicos.</p> <p>p) <i>Resto o rechazo</i>: En esta fracción se incluyen aquellos residuos que no puedan ser objeto de recogida separada. Son los residuos higiénicos (pañales, compresas, algodones, toallitas húmedas, tiritas, etc.); productos de aseo como cepillos, residuos de limpieza doméstica, etc.</p> <p>q) <i>Residuos de construcción y reparación domiciliaria</i>. Son los escombros generados en las obras menores, y reparaciones domiciliarias que incluyen ladrillos, hormigón, baldosas y azulejos, madera, plásticos, placas de yeso laminado, inodoros, bañeras, tarimas, puertas, ventanas, etc.</p> <p>r) <i>Residuos de construcción y demolición</i>:</p>
---	---



hondakinak: eraikuntzako eta eraispeneko jardueretan sortutako hondakinak.

- s) *SANDACH hondakinak*: animalien gorputz osoak edo zatiak, animalia-jatorriko produktuak edo animalietatik lortutako beste produktu batzuk, giza-kontsumorako ez direnak. Produktu horiek arriskutsuak dira gizakion eta animalien osasunerako, eta, horregatik, berariazko araudi bat dute; araudiari jarraituz, hondakin horiek sortu dituztenek kudeatu behar dituzte, baimendutako kudeatzaileen bidez, eta kudeaketa hori ez da udalen eskumena. Arrandegietan, harategi-urdaitegietan eta elikagai-enpresetan sortzen diren hondakinak dira.
- t) *Prebentzioa*: substantzia, material edo produktu bat sortzeko eta diseinatzeko, ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko fasean hartutako neurrien multzoa, honako hauek murrizteko helburuarekin:
1. Hondakinen kantitatea, baita produktuak berrerabiliz edo produktuen balio-bizitza luzatuz ere.
 2. Sortutako hondakinek ingurumenean eta giza-osasunean dituzten eragin kaltegarriak, material edo energia gutxiago erabiltzea barne.
 3. Materialetan eta produktuetan dauden substantzia arriskutsuen edukia.
- u) *Hondakinen kudeaketa*: hondakinak biltzea, garraiatzea, balorizatzea eta ezabatzea, sailkapena eta aurretiko beste eragiketa batzuk barne, bai eta lan horiek zaintzea eta zabortegeiak itxi ondorengo mantentze-lanak egitea ere.
- v) *Hondakinen kudeatzailea*: baimen edo komunikazio baten bidez

residuos generados por las actividades de construcción y demolición

- s) *Residuos SANDACH*: son cuerpos enteros o partes de animales, productos de origen animal u otros productos obtenidos a partir de animales, que no están destinados para el consumo humano. Debido al riesgo que esto productos conllevan en la salud humana y animal, tienen una normativa específica en la que se establece que deberán ser gestionado por los propios generadores mediante alguno de los gestores autorizados, no siendo competencia de gestión municipal. Son residuos que se generan en pescaderías, carnicerías-charcuterías, y empresas alimentarias.
- t) *Prevención*: conjunto de medidas adoptadas en la fase de concepción y diseño, de producción, de distribución y de consumo de una sustancia, material o producto para reducir:
- 1º La cantidad de residuos, incluso mediante la reutilización de los productos o alargamiento de la vida útil de los productos.
 - 2º Los impactos adversos sobre el medio ambiente y la salud humana de los residuos generados, incluyendo el ahorro en el uso de materiales o energía.
 - 3º El contenido de sustancias peligrosas en materiales y productos.
- u) *Gestión de residuos*: la recogida, el transporte, la valorización y la eliminación de los residuos, incluida la clasificación y otras operaciones previas, así como la vigilancia de estas operaciones y el mantenimiento posterior al cierre de los vertederos
- v) *Gestor de residuos*: la persona física o jurídica, pública o privada, registrada mediante autorización o comunicación



erregistratuta hondakinak kudeatzeko edozein eragiketa egiten duen pertsona fisikoa edo juridikoa, publikoa nahiz pribatua. Hondakinen ekoizlea izan daiteke, ala ez.

- w) *Bilketa*: hondakinak modu profesionalean bildu, sailkatu eta biltegitatzeko eragiketa, ondoren tratamendu-instalazio batera eramateko.
- x) *Gaikako bilketa*: hondakin-fluxu bat motaren eta izaeraren arabera bereiz mantentzen duen bilketa, modu espezifikoan tratatu ahal izateko.
- y) *Berrerabiltzeko prestatzea*: hondakin bihurtu diren produktuak edo produktuen osagaiak beste inolako eraldaketarik gabe berrerabili ahal izateko egiaztatzea, garbitzea eta konpontzea ahalbidetzen duen balorizazio-eragiketa, produktuen arau teknikoak eta kontsumokoak betez gero hondakin izateari uzteko.
- z) *Berrerabiltzea*: hondakin ez diren produktuak edo produktuen osagaiak berriz ere sortu ziren helburu bererako erabiltzea.
- aa) *Materialen balorizazioa*: balorizazio energetikoa eta erregai gisa edo beste era batean energia sortzeko erabiliko diren materialen eraldaketa ez den balorizazio-eragiketa oro. Bestek beste, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta betetzea barne hartzen ditu.
- bb) *Birziklatzea*: hondakin-materialak berriz ere produktu, material edo substantzia bihurtzen dituen balorizazio-eragiketa oro, dela jatorrizko helbururako erabiltzeko, dela beste edozein helburutarako. Horren barruan sartzen da material

que realice cualquiera de las operaciones que componen la gestión de los residuos, sea o no el productor de los mismos.

- w) *Recogida*: operación consistente en el acopio, la clasificación y almacenamiento iniciales de residuos, de manera profesional, con el objeto de transportarlos posteriormente a una instalación de tratamiento.
- x) *Recogida separada*: la recogida en la que un flujo de residuos se mantiene por separado, según su tipo y naturaleza, para facilitar un tratamiento específico.
- y) *Preparación para la reutilización*: la operación de valorización consistente en la comprobación, limpieza y reparación, mediante la cual productos o componentes de productos que se hayan convertido en residuos se preparan para que puedan reutilizarse sin ninguna otra transformación previa y dejen de ser considerados residuos si cumplen las normas de producto aplicables de tipo técnico y de consumo.
- z) *Reutilización*: cualquier operación mediante al cual productos o componentes de productos que no sean residuos se utilizan de nuevo con la misma finalidad para la que fueron concebidos.
- aa) *Valorización de materiales*: toda operación de valorización distinta de la valorización energética y de la transformación en materiales que se vayan a usar como combustibles u otros medios de generar energía. Incluye, entre otras operaciones, la preparación para la reutilización, el reciclado y el relleno.
- bb) *Reciclado*: toda operación de valorización mediante al cual los materiales de residuos son transformados de nuevo en productos, materiales o sustancias, tanto si es con la finalidad original como con cualquier



organikoa eraldatzea, baina ez balorizazio energetikoa, ez eta erregai gisa edo betelanetarako erabiliko diren materialak lortzea ere.

cc) *Tratamendua*: balorizatzeko edo ezabatzeko eragiketak, balorizatu edo ezabatu aurreko prestaketa barne.

dd) *Balorizazioa*: eragiketa mota honetan, emaitza nagusia da hondakinei erabilera bat ematen zaiela beste material batzuen ordez erabiliz (bestela, material horiek funtzio berezi bat betetzeko erabiliko ziren), edo hondakinak prestatu egiten direla, instalazioan edo, oro har ekonomian, funtzio hori betetzeko.

ee) *Ezabatzea*: balorizazioa ez den edozein eragiketa, bigarren mailako emaitza gisa substantziak edo energia aprobetxatzen dituzten eragiketak barne.

ff) *Konposta*: medeagarri organiko higienizatu eta egonkortua, bereiz bildutako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko kontrolatu, aerobio eta termofilotik lortzen dena. Material bioegonkortua ez da konposta.

gg) *Hondakina daukana*: hondakina sortu duena edo hondakina daukan beste pertsona fisiko edo juridiko bat. Halakotzat hartuko da hondakinak abandonatuta edo zaborra sakabanatuta dauden lursailaren katastroko titularra, eta hondakin horien administrazio-arduraduna izango da, lehen hondakin horiek zeuzkana edo abandonatu dituen identifikatzailearen kasuetan izan ezik.

hh) *Zabor sakabanatua*: dagokien lekuan utzi ez diren hondakinak, naturaguneetan edo herriguneetan abandonatuta geratu direnak; kasu horretan, ohiko edo ezohiko garbiketa-lanak egin behar dira.

otra finalidad. Incluye la transformación del material orgánico, pero no la valorización energética ni la transformación en materiales que se vayan a usar como combustibles o para operaciones de relleno

cc) *Tratamiento*: las operaciones de valorización o eliminación, incluida la preparación anterior a la valorización o eliminación.

dd) *Valorización*: cualquier operación cuyo resultado principal sea que el residuo sirva a una finalidad útil al sustituir a otros materiales, que de otro modo se habrían utilizado para cumplir una función particular, o que el residuo sea preparado para cumplir esa función en la instalación o en la economía en general

ee) *Eliminación*: cualquier operación que no sea la valorización, incluso cuando la operación tenga como consecuencia secundaria el aprovechamiento de sustancias o energía.

ff) *Compost*: enmienda orgánica higienizada y estabilizada obtenida a partir del tratamiento controlado biológico aerobio y termófilo de residuos biodegradables recogidos separadamente. No se considerará compost el material bioestabilizado.

gg) *Poseedor de residuos*: el productor de residuos u otra persona física o jurídica que esté en posesión de residuos. Se considerará poseedor de residuos al titular catastral de la parcela en la que se localicen residuos abandonados o basura dispersa, siendo responsable administrativo de dichos residuos, salvo en aquellos casos en los que sea posible identificar al autor material del abandono o poseedor anterior.

hh) *Basura dispersa*: residuos no depositados en los lugares designados para ello y que acaban abandonados en espacios naturales o urbanos, requiriendo de una



ii) *Garbigunea*: etxeko hondakinak eta antzekoak biltzeko gunea. Herritarrei doan ematen zaien zerbitzua da, birziklatu, berrerabili edo balorizatu daitezkeen materialak bertan uzteko.

jj) *Mini-garbigunea*: kaleko edukiontzietan utzi ezin diren material birziklagarriak biltzeko sistema. Udalerriko hainbat lekutan daude, eta hainbat konpartimentu dituzte hondakinak biltzeko.

kk) *Ekonomia zirkularra*: sistema ekonomiko honetan, ekonomiaren produktuen, materialen eta gainerako baliabideen balioak ahalik eta denbora gehien irauten du, eta produkzioan eta kontsumoan modu eraginkorren erabiltzea sustatzen da, haien erabilerak ingurumenean duen eragina murrizteko; gainera, ahalik eta hondakin gutxien sortu eta ahalik eta substantzia arriskutsu gutxien askatzen da bizi-zikloaren fase guztietan, eta, hala dagokionean, hondakinen hierarkia aplikatzen da.

4. artikulua. Etxeko eta merkataritzako hondakinen definiziotik kanpo geratzen diren hondakinak.

Honako hondakin hauek ez dira etxeko eta merkataritzako hondakintzat hartzen, eta, beraz, ez da nahitaezkoa hauen etxeko bilketa egitea:

a) Industria-jardueretako fabrikazio-, eraldaketa-, erabilera-, kontsumo-, garbiketa- edo mantentze-prozesuen ondoriozko hondakinak.

operación de limpieza ordinaria o extraordinaria para restablecer su situación inicial.

ii) *Garbigune* o punto limpio: centro de recogida de residuos domésticos y similares que, de forma gratuita, está puesto a disposición de la ciudadanía para que deposite aquellos materiales que son susceptibles de ser reciclados, reutilizados o valorizados.

jj) *Mini garbigune o mini punto limpio*: sistema de recogida de los materiales reciclables que no se pueden depositar en los contenedores ubicados en la calle. Se localizan en diversos puntos del municipio y disponen de distintos compartimentos para el depósito de residuos.

kk) *Economía circular*: sistema económico en el que el valor de los productos, materiales y demás recursos de la economía dura el mayor tiempo posible, potenciando su uso eficiente en la producción y el consumo, reduciendo de este modo el impacto medioambiental de su uso, y reduciendo al mínimo los residuos y la liberación de sustancias peligrosas en todas las fases del ciclo de vida, en su caso mediante la aplicación de la jerarquía de residuos.

Artículo 4. Residuos excluidos de la definición de residuos domésticos y comerciales.

Quedan excluidos de la consideración de residuos domésticos y comerciales, y por tanto considerados como de recepción no obligatoria de la recogida domiciliaria los siguientes residuos:

a) Residuos resultantes de los procesos de fabricación, de transformación, de utilización, de consumo, de limpieza o de mantenimiento generados por la actividad



- | | |
|---|---|
| <p>b) Eraikuntza- eta eraipen-jardueretako hondakinak (baita hondeaketa-lurrak eta -arroak ere), herritarrek, gremioek edo bestelakoek egindako obretan edo eraberritze-lanetan sortutako hondakinak bame (obra-hondakinak, zura, ate eta leihoetako markoak, zokaloak, pertsianak, oholak, zoruak, moketak, bainuontziak, komunontziak, konketak, erradiadoreak eta antzekoak, eta, oro har, obrako edozein hondakin). Etxeko konponketa-lanetako hondakinak ezin dira etxeko hondakinekin batera kudeatu; aitzitik, San Marko Mankomunitateko garbigune batera eraman behar dira, edo kudeatzaile baimendu batek eraman behar ditu.</p> <p>c) Harategi, arrandegi eta antzeko establezimenduetan sortzen diren eta giza-kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuak (SANDACH hondakinak); ezin dira etxeko hondakinekin batera kudeatu, eta jardueren titularrek enpresa baimendu bat kontratatu behar dute horretarako.</p> <p>d) Udalak berariaz zehaztu ez dituen beste hondakin batzuk, haien izaera edo ezaugarri bereziak direla-eta hondakinak biltzeko zerbitzuak jaso ezin dituenak.</p> | <p>industrial.</p> <p>b) Los residuos de construcción y demolición (incluso tierras y rocas de excavación), incluidos los residuos generados en obras y reformas de todo tipo realizadas por ciudadanos, gremios o diversos responsables, tales como escombros, maderas, marcos de puertas y ventanas, zócalos, persianas, tarimas, suelos, moquetas, bañeras, inodoros, lavabos, radiadores y similares, en general, cualquier residuo de obra. Las obras de reparación domiciliaria no podrán ser gestionadas junto con los residuos domésticos sino que deberán ser trasladadas a un Garbigune de la Mancomunidad de San Marcos o retiradas mediante gestor autorizado.</p> <p>c) Subproductos animales no destinados al consumo humano (Residuos Sandach) que se generen en las carnicerías, pescaderías y establecimientos análogos, que no podrán ser gestionados junto con los residuos domésticos sino que las personas titulares de las actividades deberán contratar su recogida con empresa autorizada para ello.</p> <p>d) Otros residuos no especificados expresamente por el Ayuntamiento, que por su naturaleza o características especiales, no puedan ser atendidos por el servicio de recogida de residuos.</p> |
|---|---|

5. artikulua. Zerbitzuak ematea.

1. Udalak etxeko eta merkataritzako hondakinak kudeatzeko zerbitzuak emango ditu, indarrean dagoen legedian zerbitzu publikoak kudeatzeko ezarritako edozein modutan, ordenantza honetan aurreikusitako baldintzen arabera eta Udalak une bakoitzean bere interesen arabera komenigarritzat jotzen dituen sistema teknikoen eta antolakuntzako arabera.
2. Udalak San Marko Mankomunitateari laga diezaioke zerbitzu jakin batzuen

Artículo 5. Prestación de los servicios.

1. El Ayuntamiento prestará los servicios de gestión de los residuos domésticos y comerciales por cualquiera de las formas de gestión de servicios públicos establecidas en la legislación vigente, según los términos previstos en esta Ordenanza y conforme a los sistemas técnicos y organizativos que en cada momento estime más conveniente para sus intereses.
2. El Ayuntamiento podrá ceder la competencia para la prestación de



eskumena, dagozkion lankidetzahitzamenak sinatuz.

3. Aldian-aldian, Udalak ingurumenari buruzko informazio-kanpainak egingo ditu, herritarrak osasun publikoaren eta ingurumenaren inguruan gehiago sentsibilizatzeko.
4. Berariaz, kultura-aldaketak lortzeko kanpainak antolatuko dira, bide publikoan eta ostalaritzan ohitura desegokiak saihesteko: hondakinak abandonatzea edo lurrera botatzea.

6. artikulua. Kudeaketako hierarkia.

1. Udalak hondakinak biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren antolaketa eta garapena orientatuko ditu, lehentasun-ordena honen arabera:
 - a) Prebentzioa
 - b) Berrerabiltzeko prestatzea
 - c) Birziklatzea
 - d) Beste balorizazio mota bat, balorizazio energetikoa barne
 - e) Ezabatzea
2. Hala ere, ingurumen-eragozkeraren ondoriozko asmozko beharrezkoa bada hondakin-fluxu jakin batzuetan hierarkia hori aldatzea, lehentasunen ordena aldatu ahal izango da, hondakin horiek sortzeak eta kudeatzeak izango dituen inpaktuen eta bizi-zikloko ikuspegi baten arabera justifikatuta, eta, betiere, honako alderdi hauek kontuan hartuta: zehaztasunaren eta iraunkortasunaren printzipio orokorrak, ingurumenaren babesari dagokionez; bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa; baliabideen babesari; eta giza osasunari, ekonomiarik eta

determinados servicios a la Mancomunidad de San Marcos, a través de la firma de los correspondientes convenios de colaboración.

3. Periódicamente el Ayuntamiento realizará campañas de información ambiental para aumentar el grado de sensibilización de la ciudadanía con respecto a la salud pública y al medio ambiente.
4. Específicamente, se organizarán campañas para obtener cambios culturales tendentes a la modificación de hábitos incorrectos en la vía pública y hostelería: abandono o vertido de residuos al suelo.

Artículo 6. Jerarquía de gestión.

1. El Ayuntamiento orientará la organización y desarrollo del servicio de recogida y tratamiento de gestión de residuos según el siguiente orden de prioridades:
 - a) Prevención
 - b) Preparación para la reutilización
 - c) Reciclado
 - d) Otro tipo de valorización, incluida la valorización energética
 - e) Eliminación
2. No obstante, si para conseguir el mejor resultado medioambiental global en determinados flujos de residuos fuera necesario apartarse de dicha jerarquía, se podrá adoptar un orden distinto de prioridades previa justificación por un enfoque de ciclo de vida sobre los impactos de la generación y gestión de esos residuos, teniendo en cuenta los principios generales de precaución y sostenibilidad en el ámbito de la protección medioambiental, la viabilidad técnica y económica, la protección de los recursos, así como el conjunto de impactos medioambientales sobre la salud



gizarteari begirako ingurumen-inpaktuen multzoa, hori guztia Ekonomia zirkularerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen 1. eta 7. artikuluen arabera.

7. artikulua. Erregimen fiskala.

1. Urtero, Udalak Ordenantza Fiskalean ezarriko ditu legez haren xede diren zerbitzuak emateari dagozkion tasak. Hondakinak sortzeagatik pagatzeko sistemak ezartzera zuzenduko dira tasa horiek, eta erabiltzaileek pagatu egin beharko dituzte.
2. Tasen konfigurazioan, ingurumen-irizpideak eta fiskalitate berdeko mekanismo aurreratuak ezarri ahalko dira, hondakinen gaikako bilketan proaktiboki parte hartzen duten pertsonentzat onura ekonomikoa dakartenak.
3. Urtero, Udalak tasa horien berri eman beharko dio Eusko Jaurlaritzako organo eskudunari, bai eta tasa horiek egiteko erabilitako kalkuluen berri ere.

8. artikulua. Erreketak, suak eta errausketa debekatzea.

1. Debekatuta dago edozein motatako hondakinak (landare-jatorrikoak bane) erretzea, espazio publikoan zein pribatuan, eta hiri-lurzoruan zein lurzoru urbanizagarrian. Bi salbuespen daude.
2. Udalaren baimena beharko da kultura-ekitaldietan sua egiteko. Kasu horretan, Udalak ezarritako arauak jarraituz egin beharko dira erreketak. Udalerriko espazio babestuetan ezingo da surik baimendu, inolaz ere.
3. Lurzoru urbanizaezinean uztondoak, inausketako hondarrak, lastoa eta

humana, económicos y sociales de acuerdo a los artículos 1 y 7 de la Ley de residuos y suelos contaminados para una economía circular.

Artículo 7. Régimen fiscal.

1. Anualmente, el Ayuntamiento establecerá en la Ordenanza Fiscal las tasas correspondientes a la prestación de los servicios que por Ley sean objeto de ellas, que estarán dirigidas a la implantación de sistemas de pago por generación, debiendo las personas usuarias proceder al pago de las mismas.
2. En la configuración de las tasas podrán establecerse criterios ambientales y mecanismos avanzados de fiscalidad verde, que supongan un beneficio económico para las personas que participen proactivamente en la recogida selectiva de residuos.
3. Anualmente el Ayuntamiento deberá comunicar estas tasas, así como los cálculos utilizados para su confección al órgano competente del Gobierno Vasco.

Artículo 8. Prohibición de quemas, hogueras e incineración.

1. Queda prohibido realizar cualquier tipo de quema de residuos, también los de origen vegetal, en espacios públicos y privados, incluso en suelo urbano y urbanizable. Se establecen dos excepciones
2. Se requerirá autorización del Ayuntamiento para la realización de hogueras en eventos de carácter cultural. En este caso, las quemas se deberán realizar siguiendo las normas que establezca el Ayuntamiento. En ningún caso, se permitirán estas hogueras en espacios protegidos de este término municipal.



nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiattegietan erabilitako beste edozein material natural (nekazaritzakoa edo basokoa) eta ez-arriskutsu erre nahi badira, Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaio, baimena eman dezan eta adieraz dezan zer material erre daitezkeen eta zer egunetan, biodibertsitatea eta mendiak zaintzeko legedi sektorialari jarraituz.

III. TITULUA. HONDAKINEN BILKETA.

1. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK.

9. artikulua. Bilketa-sistema.

1. Udalak material birziklagarriak eta bestelakoak gaika biltzeko sistema hau erabiliko du:

Bilketa bide publikoan jarritako edukiontzien bidez egingo da, hondakin-sortzaile handientzako banakako bilketa-zerbitzuak izan ezik. Bide publikoaren kontzeptua zentzu zabalean hartuko da, erabilera publikoko zortasuna duten eremuak eta abar barne hartuta. Frakzio bakoitzaren edukiontzia kolorea aldatzeko aukera egongo da. Sistema honen bidez, frakzio hauek jasoko dira:

- Edukiontzi marroia: etxe eta merkataritzako biohondakin organikoak biltzeko erabiliko da, bai kozinatuak bai kozinatu gabeak, animalia- zein landare-jatorrikoak, SANDACH hondakinak izan ezik. Oro har, hondakin organikoak poltsa konpostagarrietan sartuta utzi beharko dira edukiontzi barruan. Edukiontzia txartel elektronikoa

3. En el suelo no urbanizable, la quema de rastrojos, restos de poda, paja y cualquier otro material natural, agrícola o silvícola, no peligroso, utilizado en explotaciones agroganaderas deberá ser comunicada a la Diputación Foral de Gipuzkoa, autorizándola previamente, al objeto de que ésta pueda controlar el día y la naturaleza de los materiales objeto de combustión, en aplicación de la legislación sectorial de conservación de la biodiversidad y de montes.

TÍTULO II. RECOGIDA DE RESIDUOS.

CAPÍTULO 1. NORMAS GENERALES.

Artículo 9. Sistema de recogida.

1. El sistema de recogida selectiva de los materiales reciclables y otros que el Ayuntamiento llevará a cabo será el siguiente:

La recogida se desarrollará mediante un sistema de contenedores instalados en la vía pública, salvo los servicios de recogida individualizada a grandes generadores de residuos. El concepto de vía pública se entenderá en sentido amplio incluyendo zonas con servidumbre de uso público, etc. el color del contenedor de cada fracción podrá variar con el tiempo. Las fracciones a recoger mediante este sistema serán las siguientes:

- Contenedor marrón: será utilizado para la recogida de biorresiduo orgánico domiciliario y comercial, tanto cocinado como sin cocinar, de origen animal o vegetal, a excepción de los residuos SANDACH. Con carácter general, el residuo orgánico se depositará dentro del contenedor en bolsas compostables. La apertura del contenedor se llevará a cabo



<p>baten bidez irekiko da, eta erabiltzaileek txartel hori erabili beharko dute barruan biohondakinak uzteko.</p> <ul style="list-style-type: none">- Edukiontzi grisa: haien izaeragatik eta egungo baliabide teknologikoekin birziklagarriak ez diren hondakinak biltzeko balio du. Edukiontzia txartel elektronikoa baten bidez irekiko da, eta erabiltzaileek txartel hori erabili beharko dute barruan errefusa uzteko. Hondakinak poltsa iragazgaitzetan sartuta utzi behar dira edukiontziaren barruan, poltsa behar bezala itxita.- Edukiontzi horia (handia): plastikozko, metalezko eta brik erako ontzi arinak utziko dira barruan.- Edukiontzi urdina: etxeetan sortutako paperezko eta kartoizko hondakinak biltzeko bakarrik erabiliko da. Hondakin horiek behar bezala tolestuta sartu beharko dira edukiontzian. Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreko ekoizle handiek ezingo dute erabili edukiontzi urdina.- Edukiontzi berdea: bertan beirazko ontziak utziko dira (botilak, potoak, flaskoak, etab.). Tapak eta tapoiak, ordea, edukiontzi horian utzi behar dira, ontzi arinekin batera.- Edukiontzi hori txikia: bertan pila prismatikoak (gatzekoak eta alkalinoak) eta botoi-pilak utziko dira.- Edukiontzi zuria: bertan jasoko dira ehungintzako hondakinak eta osagarriak.- Edukiontzi gris/laranja: etxeko olio	<p>mediante una tarjeta electrónica, que las personas usuarias deberán utilizar para depositar biorresiduo en su interior.</p> <ul style="list-style-type: none">- Contenedor gris: sirve para el depósito de aquellos residuos que, por su naturaleza y con los medios tecnológicos actuales, no sean reciclables. La apertura del contenedor se llevará a cabo mediante una tarjeta electrónica, que las personas usuarias deberán utilizar para depositar la fracción rechazo en su interior. Los residuos se depositarán en el interior del contenedor en bolsas impermeables debidamente cerradas.- Contenedor amarillo (grande): se depositarán en su interior los envases ligeros de plástico, de metal y de tipo brick.- Contenedor azul: su utilización es exclusiva para la recogida de residuos de papel y cartón, que deberán ser debidamente plegados y depositados en su interior, estando destinado al uso por el sector residencial, quedando excluido de su utilización los grandes productores del sector comercial y hostelero.- Contenedor verde: se depositarán en su interior los envases de vidrio (botellas, botes, frascos, etc.). Las tapas y tapones correspondientes se depositarán sin embargo junto con los envases ligeros.- Contenedor amarillo pequeño: se depositarán en este contenedor la pilas prismáticas (salinas y alcalinas) y las de botón.- Contenedor blanco: mediante este contenedor se recogerán los residuos textiles y complementos.- Contenedor gris/naranja: estos
--	---



erabilia biltzeko bakarrik da. Olioa ongi itxitako ontzi baten barruan utzi behar da. Ezin da olio mineralik, automobilgintzako oliorik edo bestelakorik utzi.

- Mini-garbiguneak: udalerriko hainbat lekutan jarritako mini-garbiguneetan, panelean eta Udalaren webgunean adierazitako hondakinak utzi ahal izango dira.

2. Halaber, Lasarte-Oriako herritarrek beste garbigune osagarri batzuk ere erabil ditzaketen hondakinak uzteko. Lasarte-Oria San Marko Mankomunitatearen kide da, eta, bertan, gaur egun 5 garbigune daude: Usurbilgoa (Atallu industrialdean), Hernanikoa (Ibarluze industrialdean), Donostia-Atotxa Errekakoa (Zuatzu enpresa-parkerako igoeran), Donostia-Garberakoa (Garbera zentrorako igoeran), eta Oiartzungoa (Talaia industrialdean). Garbigune horietan utz daitezkeen hondakinak eta garbiguneak erabiltzeko arauak San Marko Mankomunitatearen webgunean daude.

3. Bestalde, etxeko hondakin arriskutsuak San Marko Mankomunitateko furgoneta ibiltarian ere utz daitezke. Furgonetaren egutegia eta Lasarte-Oriatik igarotzen den eguna Lasarte-Oriako Udalaren eta Mankomunitatearen webguneetan eta beste bitarteko batzuetan zehaztuta daude.

4. Sendagaien hondakinak, furgoneta ibiltarian ez ezik, farmazietan eta anbulatorioetan jarritako edukiontzi espezifikoetan (SIGRE puntuak) ere utz daitezke. Horietan, jada behar ez

contenedores son exclusivamente para la recogida de aceite doméstico usado, que deberá depositarse directamente dentro de un envase debidamente cerrado. En ningún caso se deberá depositar en su interior aceite mineral, de automoción u otros.

- Mini-garbigunes o mini puntos limpios: en los mini-garbigunes colocados en diferentes puntos del municipio se podrán depositar los residuos indicados en el panel y en la web municipal.

2. Asimismo, existen Garbigunes o puntos limpios complementarios en los que la ciudadanía de Lasarte-Oria puede depositar sus residuos. Dentro de la Mancomunidad de San Marcos, a la que pertenece Lasarte-Oria, existen actualmente 5 garbigunes: Usurbil (polígono Atallu), Hernani (Polígono Ibarluze), Donostia-Atotxa Erreka (en la subida al parque empresarial Zuatzu), Donostia-Garbera (en la subida al CC Garbera), Oiartzun (polígono Talaia). Los residuos que pueden depositarse en estos Garbigunes, así como las normas para su utilización están recogidas en la web de San Marcos.

3. Por otra parte, los residuos peligrosos del hogar también pueden depositarse en la furgoneta itinerante de la Mancomunidad de San Marcos. El calendario del camión y su paso por Lasarte-Oria están definidos en las webs y en otros medios del Ayuntamiento de Lasarte-Oria y de la Mancomunidad.

4. La recogida de residuos de medicamentos, además de la furgoneta itinerante, se realiza a través de los contenedores específicos instalados en las farmacias y ambulatorios (Puntos



dituzten edo iraungita dauden sendagaiak utz ditzakete herritarrek, bai eta sendagaien ontzi hutsak ere.

5. Tamaina handiko hondakinak (altzariak, koltxoak, besaulkiak, sofak, etxetresna elektrikoak, telebistak, ordenagailuak...) Udalak adierazitako lekuetan eta orduetan bilduko dira. Udalak jakinaraziko du zer egunetan utzi ahal izango dituzten erabiltzaileek tamaina handiko hondakinak ezarritako leku horietan.
6. Gailu elektrikoak eta elektronikoen hondakinak (GEEH) gailu berriak erosten diren establezimenduetan utz daitezke, gailu berriak erostean, eta zerbitzu horrek ez du inolako kosturik, baldin eta gailu zaharraren ordeza haren baliokidea den beste bat erosten bada. Horrez gain, erabiltzaileek garbiguneetara ere eraman ditzakete GEEHak, eta gailu elektronikotxikiak San Marko Mankomunitatearen furgoneta ibiltarian eta garbiguneetan utz daitezke.
7. Lagun egiteko animalien hilotzei dagokienez, albaitaritzako zerbitzu pribatu baten bidez kudeatu behar dira.
8. Landa-eremuan dauden nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatagietan hildako animalien kudeaketari dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du.
9. Era berean, elkarte gastronomikoak eta era guztietako elkarteak etxeko eta merkataritzako hondakinak gaika biltzeko udal-sistema unibertsala erabiliko dute, ordenantza honetan adierazitako moduan.

SIGRE) donde los consumidores pueden depositar los medicamentos que ya no necesiten o que estén caducados, así como sus envases vacíos.

5. La recogida de residuos voluminosos (muebles, colchones, sillones, sofás, electrodomésticos, televisores, ordenadores...) se efectuará en los puntos y horarios indicados por el Ayuntamiento, que hará pública la información de los días en los que las personas usuarias podrán depositar los residuos voluminosos en los lugares establecidos.
6. La recogida de los aparatos eléctricos y electrónicos (RAEE) usados se puede realizar en los establecimientos donde se adquieran los nuevos, en el momento de la compra, y sin coste alguno, si se decide sustituir el aparato por otro nuevo que sea equivalente. Además de esto también pueden ser transportados por las personas usuarias hasta los Garbigunes, y los pequeños aparatos electrónicos usados también se pueden depositar en el camión itinerante de la Mancomunidad de San Marcos, así como en los Garbigunes,
7. En cuanto a la gestión de cadáveres de animales de compañía, se deberá solicitar la misma mediante un servicio veterinario privado.
8. En cuanto a la gestión de animales muertos en áreas rurales, provenientes de explotaciones agroganaderas, se desarrolla por la Diputación Foral de Gipuzkoa.
9. Igualmente, las sociedades gastronómicas y las asociaciones de todo tipo utilizarán el sistema universal de recogida selectiva municipal de residuos domésticos y comerciales en los términos expresados en esta Ordenanza.



10. Era berean, ekitaldi publikoak, jaialdiak, azoka txikiak, jaiak, azokak, jolas-eremuetako jarduerak, beste ekitaldi batzuk eta abar ordenantza honen mende egongo dira, etxeko eta merkataritzako hondakinak jatorrian bereizi eta gaika biltzeari eta bestelako zehaztapenei dagokionez. Beraz, antolatzaileek arduratu beharko dute ekitaldi horietan sortutako hondakinak kudeatzeaz.
11. Lortutako emaitza teknikoen eta ekonomikoen arabera, Udalak sistema aldatu ahal izango du, betiere gaikako bilketa-zerbitzua hobetzeko eta bilketako ehunekoak handitzeko asmoz, eta hondakinen kudeaketaren arloan Europar Batasuneko ingurumen-helburuekin lerrokatuta.
12. Udalak lankidetzaz hitzarmenak egin ditzake beste administrazio publiko batzuekin edo partikularrekin, gaikako bilketaren eraginkortasuna eta ingurumen-helburuak areagotzeko.
13. Azaldutako sistemetan, litekeena da hondakinak sortzeagatik ordaindu beharreko tasak ezartzea. Kasu horretan, erabiltzaileak zerbitzuaren kostuak ordaindu beharko ditu, sortzen duen hondakin-kantitatearen arabera.
14. Alkatetzaren ebazpenaren bidez, edukiontzien ordutegia eta erabilera zehaztu ahal izango dira, beharren eta dauden giza-baliabideen eta baliabide teknikoen arabera behar bezala justifikatuta.

10. artikulua. Bilketa egiteko baimena duten eragileak.

1. Udalak baimendutako zerbitzuak edo zerbitzuek baino ezin dituzte bildu etxeko hondakinak, Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuko Sistema

10. Igualmente, los actos públicos, festivales, mercadillos, fiestas, ferias, actividades en áreas recreativas, otros eventos, etc., están sujetos a esta Ordenanza en cuanto a la separación en origen y recogida selectiva de residuos domésticos y comerciales y otras determinaciones. Por tanto las entidades organizadoras deben responsabilizarse en estos términos de la gestión de los residuos generados en dichos eventos.
11. El sistema podrá ser modificado por el Ayuntamiento en función de los resultados técnicos y económicos obtenidos, y siempre orientado a la mejora y al aumento de los porcentajes de recogida selectiva, alineándolos con los objetivos ambientales comunitarios en materia de gestión de residuos.
12. El Ayuntamiento podrá establecer convenios de colaboración con otras Administraciones Públicas o con particulares al objeto de aumentar la eficiencia de la recogida selectiva y de sus objetivos ambientales.
13. Cualquiera de estos sistemas podrá venir acompañado del pago de una tasa por generación de residuos, según el cual la persona usuaria soportaría los costes del servicio en función de las cantidades de residuos que genere.
14. Por Resolución de Alcaldía y debidamente justificado en función de las necesidades y de los medios técnicos y humanos disponibles, se podrá precisar el horario y el uso de los contenedores.

Artículo 10. Agentes autorizados para la recogida.

1. Únicamente está facultado para realizar la recogida de residuos domésticos, el servicio o los servicios autorizados por el Ayuntamiento, exceptuando el caso de



Kolektiboen (EEHSK, garai batean Gestio Sistema Integratu zeritzona) babespean dauden hondakinak kenduta. Horrenbestez, debekatuta dago beste edozein pertsona fisikok edo juridikok hondakinak biltzea.

2. Merkataritzako hondakin ez-arriskutsuen eta industrietan sortutako etxeko hondakinen kudeaketa nahitaez txertatuko da ordenantza honetan edo etorkizunean hura ordezkari dezakeen araudiak ezarritako sistema publikoan.

11. artikulua. Hondakinen titular erantzulea.

1. Hondakinek titular erantzule bat izango dute beti: erabiltzailea, ekoizlea, hondakina daukana edo kudeatzailea izango da, kasuen arabera.
2. Administrazio-erantzukizunetik salbuetsita geratuko dira, bakar-bakarrik, dagozkion ordenantzak eta aplikatu beharreko gainerako araudia betez hondakinak Udalarari eman dizkietenak, edo hondakinak kudeatzeko lanak egiteko administrazio-baimena duten kudeatzaileei eman dizkietenak.

12. artikulua. Biltzeko betebeharra.

1. Udalak etxeetan eta zerbitzu-establezimenduetan sortutako etxeko hondakinak bilduko ditu.
2. Hala ere, Udalak derrigortuta, litekeena da etxeko hondakin arriskutsuak edo kudeaketa zailtzen duten ezaugarriak dituzten hondakinak sortu dituen edo hondakin horiek dauzkan pertsonak

aquelloos residuos amparados en un Sistema Colectivo de Responsabilidad Ampliada del Productor (SCRAP o anteriormente denominado SIG). Consiguientemente, se prohíbe que cualquier otra persona, física o jurídica, realice operaciones de recogida de residuos.

2. La gestión de los residuos comerciales no peligrosos y los domésticos generados en industrias quedan incorporadas obligatoriamente al sistema público implantado en los términos de esta Ordenanza o en la normativa que pueda sustituirla en el futuro.

Artículo 11. Titular responsable de los residuos.

1. Los residuos tendrán siempre una persona titular responsable que será el/la usuario/a, el/la productor/a, el/la poseedor/a o gestor/a de los mismos, según los casos.
2. Solamente quedarán exentos de responsabilidad administrativa quienes los hubieran entregado al Ayuntamiento observando las respectivas Ordenanzas y demás normativa aplicable, o quienes hubieran cedido los residuos a gestores autorizados administrativamente para realizar las operaciones de la gestión de los residuos.

Artículo 12. Obligación de recogida.

1. El Ayuntamiento recogerá los residuos domésticos generados en hogares y establecimientos de servicios.
2. No obstante, podrá obligar, a la persona o entidad productora o poseedora de residuos peligrosos domésticos o de residuos cuyas características dificulten su gestión, a que adopten medidas para eliminar o reducir dichas características



edo erakundeak neurriak hartu behar izatea ezaugarri horiek ezabatzeko edo arintzeko, edo hondakinak modu eta leku egokian utzi behar izatea.

3. Industria-eremuetan, gaikako bilketa San Marko Mankomunitateari transferituta dago, eta hark arautzen ditu zerbitzuak eta tasak.

Hala ere, Udalak edo Mankomunitateak uko egin diezaiokete zerbitzua emateari, industria eremua dagoen lekuagatik eta sortutako hondakinen ezaugarriengatik, bolumenagatik edo kantitatearengatik.

Enpresaren batek arazoak baditu Udalak ematen duen bilketa-sistemara egokitzeko, kudeaketa kudeatzaile baimendu baten bitartez egiteko baimena eman dezake Udalak.

Udal-bilketako zerbitzu hori ematen ez den bitartean, establezimenduek kontratu bat izan beharko dute enpresa kudeatzaile baimendu batekin, eta urtebeteko epean hondakinak kudeatzaile horrek eraman dituela egiaztatzen duen dokumentazioa gorde beharko dute.

4. Aurreko paragrafoan adierazitako establezimenduen titularrek martxoaren 31 baino lehen igorri beharko dituzte albaranak udaletxera, Udalak egiazta dezan hondakinak ordenantza honetan ezarritakoaren arabera kudeatzen ari direla.

13. artikulua. Bilketaren maiztasuna eta ordutegiak.

1. Udalak, San Marko Mankomunitatearekin lankidetzan, udalerraren interesen arabera komeni eta egoki diren bilketa-maiztasuna eta -ordutegiak ezarri eta argitaratuko ditu Udalaren webgunean eta

o a que los depositen en la forma y lugar adecuados.

3. La recogida selectiva en las zonas industriales se halla transferida a la Mancomunidad de San Marcos, quién efectúa la regulación de servicios y tasas. No obstante, el Ayuntamiento o la Mancomunidad podrán denegar la prestación del servicio por razón de la ubicación, características de los residuos, o volumen o cantidad generada.

En el caso de que alguna empresa tuviera problemas para adaptarse al sistema de recogida que presta el Ayuntamiento, éste podrá autorizar la gestión a través de un gestor autorizado. En tanto en cuanto no se preste este servicio de recogida municipal, los establecimientos estarán obligados a contar con un contrato suscrito con una empresa gestora autorizada y a archivar la documentación que acredite la retirada de los residuos durante el plazo de un año.

4. Las personas titulares de los establecimientos señalados en el apartado anterior deberán remitir los albaranes al Ayuntamiento antes del 31 de marzo, al objeto de que éste compruebe que la gestión de los residuos se está realizando conforme a lo establecido en esta ordenanza.

Artículo 13. Frecuencia y horarios de recogida.

1. El Ayuntamiento, en colaboración con la Mancomunidad de San Marcos, establecerá y publicará en la web y tablón de anuncios municipal, la frecuencia y horarios de recogida que considera más convenientes e idóneos para los intereses del municipio.



iragarki-taulan.

2. Interes publikoko arrazoiak direla-eta, Udalak komenigarritzat jotzen dituen aldaketak egin ahal izango ditu, eta zerbitzuaren ordutegian edo maiztasunean egindako aldaketen berri eman beharko du behar besteko aurrerapenarekin.

2. KAPITULUA. HONDAKINAK BIDE PUBLIKOAN JARRITAKO EDUKIONTZIAN BILTZEKO ARAUAK

14. artikulua. Bildutako frakzioak.

1. Udalak edukiontzia jarriko ditu bide publikoan, jarraian adierazitako frakzioak gaika biltzeko. Sistemaren eraginkortasun-arrazoiengatik, litekeena da gaika bildutako frakzioak areagotzea edo murriztea.
 - a) Biohondakinak
 - b) Errefusa
 - c) Papera eta kartoia
 - d) Ontzi arinak
 - e) Beira
 - f) Olioia
 - g) Pilak
 - h) Ehunak
2. Biohondakinak eta errefusa gaika biltzeko berriazko edukiontzien mekanismo elektronikoa bat izango dute irekitzeko, hondakinen eta subjektu erabiltzaile guztien kudeaketa errazteko.
3. Halaber, edukiontzia eta biltze-sistema bera sistema egokiaz hornitu ahal izango dira, sorreraren arabera ordaintzeko tasak ezarri ahal izateko.
4. Udalak berak erabakiko du zer edukiontzi mota jartzen diren eta eremu bakoitzean zenbat edukiontzi eta non jartzen diren, San Marko Mankomunitatearekin lankidetzan.

2. El Ayuntamiento podrá introducir las modificaciones que, por motivos de interés público, tenga por convenientes, divulgando con la suficiente antelación los cambios en el horario, o frecuencia de la prestación del servicio.

CAPÍTULO 2. NORMAS PARA LA RECOGIDA EN CONTENEDOR EN VÍA PÚBLICA

Artículo 14. Fracciones recogidas.

1. El Ayuntamiento dispondrá contenedores en vía pública para la recogida selectiva de las siguientes fracciones, sin perjuicio de que éstas puedan ser ampliadas o reducidas por razones de eficiencia del sistema:
 - a) Biorresiduos
 - b) Resto
 - c) Papel-cartón
 - d) Envases ligeros
 - e) Vidrio
 - f) Aceites
 - g) Pilas
 - h) Textiles
2. Los contenedores específicos para la recogida selectiva del biorresiduo y de la fracción resto estarán equipados con un mecanismo de apertura electrónico que facilite la gestión de los residuos y del conjunto de los sujetos usuarios.
3. Asimismo, los contenedores y el propio sistema de recogida podrán dotarse de los sistemas oportunos para permitir el pago por generación.
4. El tipo de contenedores, el número de unidades en cada zona y su ubicación serán fijadas por el propio Ayuntamiento en colaboración con la Mancomunidad de San Marcos.



15. artikulua. Hondakinak uzteko betebeharra.

1. Pertsonak eta enpresek gaika utzi beharko dituzte etxeko edo merkataritzako hondakinak, bakoitza dagokion edukiontzian, Udalak zehaztutako ordutegietan eta lekuetan.
2. Gaez herritarren babes akustikoa bermatzeko, 22:00etatik 8:00etara bitarte ezin izango da beiraren edukiontzia erabili.
3. Udalak ordu-tarte jakin bat ezarri ahal izango du frakzio bakoitzeko edukiontziak erabiltzeko.
4. Derrigorrezkoa da etxeko eta merkataritzako hondakin hauek jatorrian gaika bereiztea, dagozkien edukiontzietan uzteko: biohondakinak, errefusa, papera eta kartoia, ontzi arinak, beira, olioak, pilak, ehunak, hondakin arriskutsuak, tamaina handiko hondakinak eta beste edozein hondakin. Debebatuta dago hondakin horiek ez dagozkien edukiontzietan uztea. Gaikako bilketa behar duten beste frakzio batzuk eta dagozkien edukiontziak ezarriz gero, irizpide bera aplikatuko da.
5. Hondakinak isuriak ez gertatzeko moduan utzi behar dira. Hondakinak gaizki uzteagatik isuriak gertatzen badira, gertakaria eragin duen erabiltzailea izango da zikinkeriarren eta/edo eragindako kalteen erantzulea.
6. Inola ere ez da baimentzen hondakinak pakete, kaxa eta

Artículo 15. Obligación de depósito de los residuos.

1. Las personas y empresas depositarán selectivamente sus residuos de origen doméstico o comercial dentro de los contenedores habilitados en los horarios establecidos y en los lugares que determine el Ayuntamiento.
2. Con el fin de garantizar la protección acústica de la ciudadanía en horario nocturno, el depósito selectivo de vidrio en el contenedor destinado a esta fracción no podrá efectuarse entre las 22:00 y las 8:00 horas.
3. El Ayuntamiento podrá establecer una franja horaria concreta para el depósito de los residuos en cada uno de los contenedores de las diferentes fracciones.
4. La separación selectiva en origen es obligatoria para los siguientes residuos domiciliarios y comerciales: biorresiduo, resto o rechazo, papel-cartón, envases ligeros, vidrio, aceites, pilas, textil, residuos peligrosos, voluminosos y cualquier otro residuo para su depósito en los contenedores correspondientes, quedando prohibido depositar dichos residuos en contenedores diferentes a los que les corresponda. De implantarse de nuevas fracciones sujetas a recogida selectiva y sus correspondientes contenedores se aplicará el mismo criterio.
5. Las personas usuarias depositarán los residuos de modo que no se produzcan vertidos. Si como consecuencia de una deficiente presentación de los residuos se produjeran vertidos, quien haya sido causante del hecho será responsable de la suciedad y/o daños ocasionados.
6. En ningún caso se autoriza la eliminación o abandono de residuos en paquetes, cajas y similares.



antzekoetan ezabatzea edo uztea.

7. Debehatuta dago etxeke eta merkataritzako hondakinak bide publikoko paperontzietan uztea; ontzi horiek oinezkoek erabiltzeko dira. Era berean, hondakinak ezin izango dira bide publikoan jarritako edukiontzietan utzi, haien tamainagatik edukiontziazen ahoa oztopatzen badute.
8. Apurka-apurka, materia birziklagarrien gaikako bilketarako eta bilketa integralerako paperontzien taldeak edo irlak jarriko ditu Udalak bide publikoan, eta derrigorrezkoa izango da hondakinak utzi aurretik bereiztea.
9. Debehatuta dago beste udalerrit batzuetatik Lasarte-Oriara hondakinak ekartzea eta bide publikoan jarritako edukiontzietan, bilketa-guneetan eta gaikako bilketarako paperontzietan uztea.
10. Debehatuta dago hondakin likidoak edo likidotu daitezkeen hondakinak edukiontzietan uztea, sukaldean erabilitako olioak izan ezik (dagokion edukiontzian).
11. Osasun publikoko arazoak eta animalien portaera-arazoak prebenitzeko, debehatuta dago herriko animaliei, animalia basatuei zein animalia basatiei janaria ematea, bai bide publikoan bai ingurune naturalean, eta debehatuta dago ere janari-hondarrak botatzea, animalia horiek jateko.

16. artikulua. Edukiontzi marroirako (biohondakinak) arau espezifikoak.

1. Biohondakinen edukiontzietan honako hondakin hauek utz daitezke, poltsa konpostagarrietan sartuta: landare-hondarrak (fruta, barazkiak

7. Se prohíbe el depósito de residuos domésticos y comerciales en las papeleras de la vía pública, estando destinadas al uso de viandantes. Tampoco podrán depositarse en los contenedores instalados en la vía pública cuando, por su tamaño, se obstruya la boca de recepción de las mismas.
8. Con carácter progresivo el Ayuntamiento irá instalando en la vía pública grupos o islas de papeleras destinadas a la recogida selectiva e integral de materias reciclables, siendo obligatoria la separación previa al depósito de las mismas.
9. Se prohíbe el transporte y depósito de residuos desde otros municipios con el fin de introducirlos en la red de contenedores, puntos de recogida y papeleras de recogida selectiva instaladas en la vía pública de Lasarte-Oria.
10. Se prohíbe el depósito en contenedor de residuos que contengan residuos líquidos, o que sean susceptibles de licuarse, a excepción del aceite de cocina usado en su contenedor selectivo correspondiente.
11. Con el fin de prevenir problemas de sanidad pública y comportamiento animal, se prohíbe dar de comer a los animales urbanos, asilvestrados o salvajes tanto en vía pública como en el medio natural, así como el vertido y depósito de restos de comida con el fin de facilitarles alimentación.

Artículo 16. Normas específicas para el contenedor marrón (biorresiduos).

1. En los contenedores de biorresiduos pueden depositarse introducidos en bolsas compostables los siguientes residuos: restos vegetales (frutas,



eta inausketako hondar puskatuak), haragi- eta arrain-hondakinak (kozinatua edo kozinatu gabeak), fruitu lehorrak, ogi zatikatua, oskolak eta maskorrak, kafe- edo infusio-hondarrak eta iragazkiak, zerrauts naturala eta sukaldeko paper zikina. Edukiontzia marroian utz daitezkeen biohondakinen zerrenda xehea Udalaren webgunean dago.

2. Debekatuta dago harategi, arrandegi eta antzeko merkataritza-establezimenduetako haragiaren eta arrainaren hondarrak eta ontziak (SANDACH hondakinak) edukiontzia marroian uztea, kontuan hartuta 1528/2012 Errege Dekretuak, azaroaren 8koak, giza-kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuei eta produktu deribatuei aplikatzeko arauak ezartzen dituenak agindutakoa.
3. Establezimendu horien titularrek kudeatzaile baimenduak kontratatu beharko dituzte azpiproduktu horiek biltzeko edo kudeatzeko, eta urtebeteko epean hondakinak kudeatzaile horiek eraman dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa gorde beharko dute.
4. Osasun publikoa bermatzeko, SANDACH hondakinak sortzen dituzten establezimendu guztiek animalia-azpiproduktuak behar bezala kudeatzen dituztela egiaztatu behar dute etengabe. Udalak noiznahi eskatu ahal izango die agirien kopia bat.
5. Animalia-azpiproduktuak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten agiriak urtero bidali beharko dira Udalera, martxoaren 31 baino lehen.

verduras y podas troceadas), residuos de carne y pescado (cocinados o sin cocinar), frutos secos, pan troceado, cáscaras y conchas, posos y filtros de café o infusiones, serrín natural y papel de cocina sucio. El listado más detallado de los biorresiduos que pueden depositarse en el contenedor marrón puede consultarse también en la web municipal.

2. Queda prohibido depositar en los contenedores marrones los restos de carne y pescado y cajas de los envases que los contengan procedentes de carnicerías, pescaderías y otros establecimientos comerciales similares (residuos SANDACH), de conformidad con lo dictado por el Real Decreto 1528/2012, de 8 de noviembre, por el que se establecen normas aplicables a los subproductos animales y los productos derivados no destinados al consumo humano.
3. Las personas titulares de los anteriores establecimientos deberán contratar los servicios de gestores autorizados para la recogida o gestión de dichos subproductos, además de conservar la documentación que acredite las entregas a aquellos durante el último año.
4. Con el fin de garantizar la salud pública, todos los establecimientos generadores de residuos SANDACH deben acreditar permanentemente la correcta gestión de los subproductos animales. El Ayuntamiento podrá solicitarles en cualquier momento copia de la misma.
5. La documentación que acredite la correcta gestión de los subproductos animales se deberá enviar anualmente al Ayuntamiento antes del 31 de marzo



17. artikulua. Udalerriko bilketa-guneak.

1. Bilketa-zerbitzuek hondakinak eraman ditzaten, Udalak jarritako tokietan utziko dituzte erabiltzaileek. Debekatuta dago hondakinak bide publikoan jarritako edukiontzietatik edo paperontzietatik kanpo uztea, tamaina handiko hondakinak izan ezik, Lasarte-Oriako Udalak ezarritako baldintzetan.
2. Obrak edo zerbitzuaren beharrak direla eta, hondakinak uzteko beste leku batzuk ezarri ahal izango ditu Udalak, behin betiko edo behin-behinean.
3. Bide publikoko obren ondorioz edukiontziak kendu behar badira, obra sustatzen duenaren ardura izango da zeregin hori; horretarako, edukiontziak mugitzeko baimena eskatu beharko dio Udalari, eta, ondoren, edukiontziak baldintza egokietan jarri beharko ditu.

18. artikulua. Edukiontzien kontserbazioa.

1. Udalak hiri-espazioan erreserba bereziak ezarriko ditu, edukiontzien zamaletarako eta behar bezala kontserbatzeko beharrezkoak diren gainerako eragiketarako.
2. Kasuan kasuko zerbitzuek aldian-aldian edukiontziak garbituko dituzte, haien kontserbazio-egoeraren arabera, eta higiene-baldintza egokiak mantentzeko.
3. Erabiltzaileek eta herritarrek, oro har, edukiontziak higiene- eta segurtasun-baldintza egokietan kontserbatzeko eta mantentzeko betebeharra dute, eta haien erruagatik, zabarkeriagatik edo arduragabekeriagatik

Artículo 17. Puntos de recogida en el término municipal.

1. A fin de que los residuos sean retirados por los servicios de recogida, las personas usuarias los depositarán en los lugares destinados por el Ayuntamiento. Se prohíbe depositar ningún tipo de residuo fuera del contenedor o de las papeleras instaladas en la vía pública, excepto los voluminosos en las condiciones establecidas por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.
2. El Ayuntamiento podrá establecer, con carácter permanente o transitorio, puntos de libramiento y acumulación de residuos distintos a los habitualmente señalados por motivos de obras o necesidades del servicio.
3. Si por realización de obras en la vía pública resultase necesaria la retirada de contenedores, quien promueva la citada obra será responsable de la misma, deberá solicitar el movimiento de los contenedores al Ayuntamiento y deberá proceder a su posterior colocación en las debidas condiciones.

Artículo 18. Conservación de contenedores.

1. El Ayuntamiento establecerá reservas especiales del espacio urbano para la carga y descarga y demás operaciones necesarias para la correcta conservación de los contenedores.
2. Los servicios correspondientes realizarán la limpieza periódica de los contenedores en función de su conservación, y para el mantenimiento de las debidas condiciones de higiene.
3. Las personas usuarias y ciudadanía en general tienen la obligación de conservar y mantener los contenedores en adecuadas condiciones de higiene y seguridad, siendo responsables del deterioro que los recipientes puedan



edukiontzia narriatzen badira, kalte horien erantzule izango dira. Betebehar bera ezartzen da barra babesle, pibote, barrote eta abarretarako, bai eta bilketa-eremuan jarritako marketarako ere, halakorik balego.

4. Debekatuta dago edukiontzia lekuz aldatzea, bai eta edukiontzia manipulatzeko ere, baldin eta manipulazio horrek egoera arriskutsuak eragin baditzake edo dagokion zerbitzuko langileek hondakinak biltzea zailtzen badu.

III. KAPITULUA. BESTELAKO HONDAKINAK BILTZEKO ARAUAK

19. artikulua. Tamaina handiko hondakinak.

1. Debekatuta dago hondakin horiek edukiontzietan uztea, bai eta bide publikoan edo orube edo lursail publiko zein pribatuetan uztea ere.
2. Erabiltzaileak gailu elektriko edo elektroniko berri bat erosten duenean, baztertutako aparatuen baliokidea bada edo haren funtzio berberak betetzen baditu, berria erostean zaharra banatzaileari entregatu ahal izango dio, eta banatzaileak aldi baterako jaso beharko du, baldin eta oinarrizko osagaiak berekin baditu eta gailuarenak ez diren beste hondakin batzuk ez baditu.
3. Udalak argitara emango du erabiltzaileek zer egunetan utz ditzaketen tamaina handiko hondakinak horretarako ezarritako lekuetan.
4. Hondakin horiek ezingo dituzte inola ere oinezkoen joan-etorriak oztopatu, eta ezingo dira galtzadan sartu. Era berean, tamaina handiko hondakinak

sufrir por su culpa, negligencia o imprudencia. La misma obligación se establece para las barras protectoras, pivotes, barrotos, etc., y marcas fijadas de las zonas de recogida si las hubiere.

4. Queda prohibido el desplazamiento del lugar indicado de los contenedores para cambiarlos de sitio, así como cualquier manipulación en los mismos que pudiera dar origen a situaciones peligrosas o dificulten la recogida por parte del personal del servicio correspondiente.

CAPÍTULO III. NORMAS PARA LA RECOGIDA DE OTROS RESIDUOS

Artículo 19: Residuos voluminosos.

1. Queda prohibido el depósito de estos residuos en los contenedores, así como el abandono de este tipo de residuos en la vía pública o en solares o terrenos tanto públicos como privados.
2. Cuando la persona usuaria adquiera un nuevo aparato eléctrico o electrónico, que sea de tipo equivalente o realice las mismas funciones que el aparato que se desecha, podrá entregarlo en el acto de la compra a la cadena distribuidora, que deberá recepcionarlo temporalmente, siempre que contenga los componentes esenciales y no incluya otros residuos no pertenecientes al aparato.
3. El Ayuntamiento hará pública la información de los días en los que las personas usuarias podrán depositar los residuos voluminosos en los lugares establecidos.
4. En ningún caso los residuos podrán suponer un obstáculo para el tránsito de los peatones, ni invadir la calzada. Igualmente, los voluminosos no podrán apoyarse en los contenedores.



ezingo dira edukiontzietan bermatu.

5. Etxebizitzetan sortutako tamaina handiko hondakinak San Marko Mankomunitatearen edozein garbigunetan ere utz daitezke.
6. Hirugarren sektoreko tamaina handiko hondakinak, merkataritza-jardueraren beraren ondorioz sortzen badira, sortu dituztenek kudeatu beharko dituzte, eta ezingo dituzte inola ere udal-bilketako guneetan utzi.

20. artikulua. Inausketak eta antzekoak.

1. Lorategi-eremu pribatuen jabeek eta arduradunek beren kabuz bildu eta kudeatu behar dituzte lorategiko hondakin organikoak, eta hondakin horiek konpostatu edo garbigunera edo hondakin-mota horiek tratatzeko instalazioetara eraman behar dituzte.

21. artikulua. Etxeko hondakin arriskutsuak.

1. Etxeetan sortutako etxeko hondakin arriskutsuak honela entregatu beharko dira:
 - a) San Marko Mankomunitatearen furgoneta ibiltarian, ezarritako egutegiaren eta ordutegiaren arabera.
 - b) Garbiguneetan, haien erregelamendu arautzailearen arabera.

22. artikulua. Sukaldeko olioak.

1. Debekatuta dago sukaldeko olioak uren saneamendu-sarera botatzea edo beste hondakin-frakzio batzuen edukiontzietan gordetzea.
2. Sukaldeko olio erabilia plastikozko ontzietan gordeko da, eta ontzi horiek

5. Los residuos voluminosos generados en viviendas pueden ser depositados también en cualquier Garbigune de la Mancomunidad de San Marcos.
6. Los residuos voluminosos del sector terciario que sean producidos como consecuencia de su propia actividad comercial, deberán ser gestionados por quienes los generen y en ningún caso podrán depositarlos en los puntos de recogida municipal.

Artículo 20. Podas y similares.

1. Las personas propietarias y responsables de áreas ajardinadas privadas están obligadas a recoger y gestionar por sus propios medios los restos orgánicos de jardinería, procediendo a su compostaje o al traslado al Garbigune o a las plantas de tratamiento de este tipo de residuos.

Artículo 21. Residuos peligrosos del hogar.

1. Los residuos domésticos peligrosos generados en los hogares deberán ser entregados:
 - a) En la furgoneta itinerante de la Mancomunidad de San Marcos, según calendario y horario establecidos.
 - b) En los Garbigunes o puntos limpios de acuerdo con su reglamento regulador.

Artículo 22. Aceite de cocina.

1. Queda prohibido el vertido de aceite de cocina a través de la red de saneamiento de aguas, así como su depósito en los contenedores habilitados para otras fracciones de residuos.
2. Los aceites de cocina generados en los hogares deberán ser introducidos por las



ondo itxi eta haientzat bereziki prestatutako edukiontzietan utziko dira.

3. Edukiontzi horiek erabiliko dira soil-soilik sukaldeko olioak biltzeko.
4. Hala nahi duenak San Marko Mankomunitatearen Garbigune batera eramango du sukaldeko olioak, edo etxeko hondakin arriskutsuak biltzen dituen furgoneta ibiltariaren esku utziko du.
5. Ostalaritza-establezimenduetako, jangeletako eta industrietako sukaldeko olioak bilketa-zerbitzuen bidez bilduko da, establezimendu horietako pertsonak edo erakunde titularrek kontratatuko duten enpresa pribatu baimendu baten bidez, eta entrega-albaranak urtebetez gordeko dira. Udalak haien kopia eskatu ahal izango du noiznahi.
6. Establezimendu horien pertsona titularrek albaranak bidaliko dituzte urtero Udalera, martxoaren 21a baino lehen, Udalak ikus dezan sukaldeko olioak biltzen dela ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

23. artikulua. Pilak.

1. Erabilitako pilak bi lekutan utzi ahal izango dira:
 - a) Behar bezala seinalizatutako edukiontzietan (edukiontzi berezi horiek egongo dira bide publikoan, banatzaileen establezimenduetan, merkataritza-guneetan, zentro publikoetan, zentro zibikoetan, etab.).
 - b) San Marko Mankomunitatearen Garbigunean edo furgoneta ibiltarian.

personas usuarias en recipientes de plástico bien cerrados, depositándolos en el interior de los contenedores habilitados a tal efecto.

3. En estos contenedores no podrán introducirse más residuos que los aceites de cocina.
4. Los aceites también podrán ser trasladados por las personas usuarias hasta uno de los Garbigunes o puntos limpios de la Mancomunidad de San Marcos o a la furgoneta itinerante para la recogida de residuos peligrosos del hogar.
5. El aceite de cocina de establecimientos de hostelería, comedores e industrias deberá ser gestionado a través de servicios de recogida mediante empresa gestora autorizada privada que deberán contratar sus personas o entidades titulares, archivando los albaranes de entrega durante el plazo de un año. El Ayuntamiento podrá solicitar copia de los mismos en cualquier momento.
6. Las personas titulares de los establecimientos señalados en el apartado anterior deberán remitir los albaranes al Ayuntamiento anualmente, antes del 31 de marzo, al objeto de que éste compruebe que la gestión del aceite se realiza de acuerdo con lo establecido en esta ordenanza.

Artículo 23. Pilas.

1. Las pilas usadas deberán ser depositadas por las personas usuarias en:
 - a) Los contenedores debidamente señalados que se podrán localizar en la vía pública, en los distribuidores, centros comerciales, centros públicos, centros cívicos, etc.
 - b) En el Garbigune (punto limpio) o furgoneta itinerante de la Mancomunidad de San Marcos.



2. Pilak ez dira inolaz ere poltsetan utziko, ezta beste hondakin batzuetarako edukiontzietan ere.

24. artikulua. Ehunak, arropa eta oinetakoak.

1. Udalak edo San Marko Mankomunitateak edukiontzi bereziak jarriko ditu hondakin-mota hau biltzeko: arropa, oinetakoak, gerrikoak, poltsak, maindireak, mantak, gortinak, toallak, etab.
2. Poltsa itxietan gordeko dira beti.
3. Nahi izanez gero, San Marko Mankomunitatearen Garbiguneetara ere eramango dira.

25. artikulua. Puntu berde mugikorra.

Udala ondoren aipatzen diren hondakinen bilketa kudeatzeaz arduratuko da San Marko Mankomunitatearen puntu berde mugikor (furgoneta ibiltaria) baten bidez (furgonetaren ordutegiak, maiztasuna eta kokapena ikusteko, kontsultatu Mankomunitatearen webgunea):

- Sukaldeko olioak.
- Pinturak, bernizak, disolbagarriak, itsasgarriak.
- Lanparak eta fluoreszenteak.
- Etxetresna elektriko txikiak.
- Telefono mugikorrak.
- Garbiketako produktu kimikoak.
- Termometroak.
- Material informatikoa: monitoreak, teklatuak.
- Pilak eta bateriak.
- Aerosol toxikoak: intsektizidak, lakak (ontzi hutsak barne).
- Autoen olioak, bateriak, iragazkiak, izotz-kontrakoa.
- Argazki-kamerak eta argazkigintzako

2. En ningún caso deberán depositarse en las bolsas ni en los contenedores destinados a otros residuos.

Artículo 24. Textil, ropa y calzado.

1. El Ayuntamiento o la Mancomunidad de San Marcos dispondrán de contenedores específicos donde las personas usuarias deberán depositar el calzado, cinturones, bolsos, y demás prendas de vestir, así como la ropa de cama, mantas, cortinas, toallas y otros materiales textiles.
2. Estos residuos deberán ser depositados siempre en bolsas cerradas.
3. Adicionalmente, estos residuos podrán ser trasladados a los Garbigunes (puntos limpios) de la Mancomunidad de San Marcos.

Artículo 25: Punto verde móvil.

El ayuntamiento gestionará el servicio de recogida de los siguientes residuos a través de un punto verde móvil (furgoneta itinerante) de la Mancomunidad de San Marcos, cuyos horarios, frecuencia y ubicación se podrán consultar en la web de la Mancomunidad:

- Aceites de cocina.
- Pinturas, barnices, disolventes, pegamentos.
- Lámparas y fluorescentes.
- Electrodomésticos pequeños.
- Teléfonos móviles.
- Productos químicos de limpieza.
- Termómetros.
- Material informático: monitores, teclados.
- Pilas y baterías.
- Aerosoles tóxicos: insecticidas, lacas (también sus envases vacíos)
- Aceites, baterías, filtros, anticongelantes, de automóviles.
- Cámaras y material de fotografía.



- materiala.
- Erradiografiak.
- Herbizidak eta intsektizidak.
- Inprimagailuen kartutxoak eta tonerrak.
- Jostailu elektrikoak eta elektronikoak.
- Cdak, DVDak, etab.

Zerrenda osoa eta eguneratua argitaratuko da Udalaren eta San Marko Mankomunitatearen webguneetan eta beste euskarri batzuetan.

26. artikulua. Hildako animaliak.

1. Animalia bat hilik aurkitzen dutenek Udalari emango diote horren berri, honek hilotza jaso dezan dagozkion higie-neurriak hartuta.
2. Debekatuta dago edozein espezieetako animalia-hilotzak etxe hondakinekin nahastea, edozein lekutan uztea edo hustubide, ibai, urmael edo estolderiara botatzea, edota jabetza publikoko lurretan lurperatzea.
3. Arau hau ez betetzeagatik zehapenez gainera, kontuan izan behar dira osasun-arloko araudian ezarritako erantzukizunak.

27. artikulua. Abandonatutako ibilgailuak.

1. Debekatuta dago erabilerarik gabeko ibilgailuak bide publikoan edo erabilera orokorreko eremuetan abandonatzea, baldin eta horien kontserbazioa eta zaintza udalaren eskumena badira.
2. Ibilgailu bat abandonatutzat hartuko da hilabete baino gehiago daramanean aparkatuta leku berean, dituen kalte eta matxurengatik bere kabuz mugitu ezin daitekeenean edo

- Radiografías.
- Herbicidas e insecticidas.
- Cartuchos y tóners de impresoras.
- Juguetes eléctricos y electrónicos.
- CDs, DVDs, etc.

El listado completo y actualizado se publicará en las webs del Ayuntamiento y Mancomunidad de San Marcos y en otros medios.

Artículo 26: Animales muertos.

1. Quienes observen la presencia de un animal muerto deben comunicar tal circunstancia al Ayuntamiento a fin de que se proceda a la retirada del cadáver en las condiciones higiénicas necesarias.
2. Se prohíbe el abandono de cadáveres de animales de cualquier especie en las basuras domiciliarias, en cualquier clase de terrenos, así como arrojarlos por el desagüe, a los ríos, lagunas, sumideros o alcantarillado e, igualmente enterrarlos en terrenos de propiedad pública.
3. La sanción por incumplimiento de esta norma será independiente de las responsabilidades que estén previstas en la normativa de orden sanitario.

Artículo 27. Vehículos abandonados.

1. Queda prohibido el abandono de vehículos fuera de uso en la vía pública o zonas de utilización general cuya conservación y policía sean de competencia municipal.
2. Se entenderá que un vehículo ha sido abandonado cuando permanezca estacionado por un período superior a un mes en el mismo lugar y/o presente desperfectos que hagan imposible su desplazamiento por sus propios medios o le falten placas de matriculación.



